



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024ko urria	
2024-2025 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19-A	1 Jarraitu irakurtzen
ABS-AREN AURKAKO IMMUNIZAZIO-KANPAINA: INFORMAZIO EGUNERATUA	2 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA Metamizola eta agranulozitosi-arriskua: EMAren ondorioak	3 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - Obesitatearen aurkako farmakoen preskripziorako alderdi praktikoak - i-botika: Termometroa ipini dut eta sukarra daukat, zer egin dezaket? - INFAC buletina: Pediatrian kontsultak egiteko ohiko arrazoiak: sukarra eta gastroenteritis akutua - INFAC buletinari buruzko inkestaren emaitzak - URM oharra: "Kate terapeutikoak eta medikamentuek eragindako kontrako erreakzioak" - Despreskripzioko esku-hartzeen eragina adin handiko pertsonen hilkortasunean eta osasun-emaitzetan: berrikuspen sistematiko eguneratua eta metaanalisisa - D bitamina gehigarria eta hausturen intzidentzia adin handiko populazio osasuntsuan: ausazko saiakuntza kontrolatuen metaanalisisa	4 Jarraitu irakurtzen
HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN	5 Jarraitu irakurtzen
APIXABAN-AREN ETA PRESBIDEN PRESKRIBATZEAREN EGOERAREN EGUNGO EGOERA ARGITZEA	6 Jarraitu irakurtzen
BERRITASUNAK FORMULAZIO MAGISTRALEAN - Formula magistral (FM) berria Presbiden: "Lugol fuerte" soluzioa - Presbideko bajak: 100 eta 200 mg-ko sodio kromoglikato kapsulen FM	7 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK	8 Jarraitu irakurtzen

1 2024-2025 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19-A

Urriaren 7an hasi da gripearen eta COVID-19aren aurkako 2024 txertaketa-kanpaina, xede-biztanleriari zuzendua (arisku handienekoak) eta abenduaren 31n amaituko da. Gripearen aurkako txertaketa herritar guztientzat izango da azaroaren 4tik aurrera, ziur asko, txertoaren eskuragarritasunaren arabera. Aurreko urteetan bezala, instituzionalizatutako pertsonen txertaketa astebete lehenago hasi da, irailaren 30ean.

Xede-populazioa antzekoa da bi txertoen kasuan, salbuespen jakin batzuekin.

Haurrei dagokienez, gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera izango dute birusaren zirkulazio handieneko denboraldian, 2025eko martxoaren 31ra arte.

Hauek dira aurtengo kanpainan erabiliko diren txertoak:

Gripearen aurkako txertoak	Xede-populazioa
Fluenz® intranasal	24 hilabetetik 59 hilabetera bitarteko haurrak
Fluarix tetra®	6 hilabetetik 23 hilabetera bitarteko haurrak ≥ 5 urtekoak
Efluelda®	Egoitzetan bizi diren 65 urtetik gorakoak
Flucelvax tetra®	≥ 2 urtekoak, arrautzarekiko eta aminoglukosidoekiko alergia dutenak
COVIDaren aurkako txertoa	Xede-populazioa
Comirnaty JN.1, 3 mcg/dosi	6-59 hilabete bitarteko haurrak
Comirnaty JN.1, 10 mcg/dosi	≥ 5 urteko haurrak eta 12 urtera arte
Comirnaty JN.1, 30 mcg/dosi	≥ 12 urteko umeak eta helduak

Kanpaina honetan, COVIDaren aurkako txertoei daokien JN.1 andui berriaz gain, Fluenz® gripearen aurkako txertoa sartu da; sudurretik ematekoa, 24-59 hilabetezko populazio pediatrikoarentzat. Txerto tribalentea da, indargetua. Kontraindikatuta dago asma larria edo sibilantzia aktiboak dituztenentzat, immunodeprimituentzat edo salizilatoekin tratamenduan dauden haurrentzat. Gainera, txerto hori jasotzen duten hurrek immunodepresio larria duten pertsonekin kontaktu esturik ez izaten saiatu behar dute txertoa jaso eta ondorengo 1-2 asteetan.

Txertaketa-gomendioak hurrengo dokumentu hauetan kontsulta daitezke:

- [2024-2025eko gripearen kanpainaren dosierra](#)
- [Gripearen eta COVIDaren aurkako txertaketa-kanpainaren laburpena \(Osakidetza\)](#)
- [Q&A Haurren txertaketa](#)
- [Gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketa-gomendioak 2024-2025 denboraldian, Espainian](#)

Informazio gehiago eskuragarri [Osakidetzaren intranet korporatiboan](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 ABS-AREN AURKAKO IMMUNIZAZIO-KANPAINA: INFORMAZIO EGUNERATUA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, 2024/09/13an 2024-2025eko denboraldirako arnas birus sintzitalaren (ABS) aurkako immunizazio-kanpainaren dokumentua eguneratu zuen. Dokumentuan, besteak beste, honako hauek

jasotzen dira: gaixotasunaren ezaugarriak, agente eragilea, transmisio-modua, inkubazio-aldia, immunitatearen iraupena eta pauta posologikoa.

Eguneraketa honetan txertaketa-jarraibidea adierazten da, ABSaren bigarren denboraldian dauden < 12 hilabeteko haur goiztiarrentzat eta gaixotasun larria izateko arrisku handia duten < 24 hilabeteko haurrentzat, euren pisuaren arabera.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu dokumentu hau: [Arnas-birus sintzitalaren aurkako immunizazioa 2024-2025eko denboraldirako](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

Metamizola eta agranulozitosi-arriskua: EMAREN ondorioak

AEMPSek EMak metamizolaren erabilerarekin lotutako agranulozitosi-arriskuari buruz egindako ebaluazioaren ondorioen berri eman du [2024ko irailaren 6ko 04/2024 MUH \(FV\) segurtasun-oharrean](#), [2024ko ekainaren 14ko 02/2024 MHU \(FV\) segurtasun-oharrean](#) jarraipen gisa.

Farmakozaintzako Arriskuak Ebaluatzeko Europako Batzordeak (PRAC) ondorioztatu du metamizolaren onurak arriskuak baino handiagoak direla baimendutako indikazioetan, eta agranulozitosiaren sintomak goiz hautematearen garrantzia azpimarratu du, konplikazioen arriskua murrizteko.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

Obesitatearen aurkako farmakoen preskripziorako alderdi praktikoak

Bidasoako ESiko LMAko farmaziak taula bat egin du, non obesitatea tratatzeko farmakoen (GLP-1en eta GIP eta GLP-1en baliokideak DM2aren eta/edo obesitatearen tratamenduan) ezaugarriei buruzko informazio praktikoa biltzen den.

Esteka [hemen](#).

i-botika: Termometroa ipini dut eta sukarra daukat, zer egin dezaket?

i-botika fitxa berri bat argitaratu da, sukarrari eta bere maneiuari buruzko informazioa herritarrei emateko:

Esteka honetan aurki daiteke fitxa: [esteka](#).

INFAC buletina: Pediatrian kontsultak egiteko ohiko arrazoiak: sukarra eta gastroenteritis akutua

INFAC buletin honetan, sukarraren eta gastroenteritis akutuaren ezaugarriak eta tratamendua aztertzen dira Lehen Mailako Arretako Pediatriarako.

Dokumentuen estekak:

- [Buletina](#)
 - [Aurkezpena](#)
-

INFAC buletinari buruzko inkestaren emaitzak

Urtarrilean egindako INFAC buletinari buruzko iritzi-inkestaren emaitzak argitaratu dira. Emaitzak ikusteko, sakatu [esteka hau](#).

INFAC Erredakzio Batzordeak eskerrak eman dizkie profesionali jasotako balorazio eta iradokizunengatik, eta gogorarazi du iritziak eman daitezkeela posta elektronikohonen bidez, hobetzen jarraitzeko: infac@osakidetza.eus

URM oharra: "Kate terapeutikoak eta medikamentuek eragindako kontrako erreakzioak"

URM ohar berri bat argitaratu da, "[Kate terapeutikoak eta medikamentuek eragindako kontrako erreakzioak](#)" gaiari buruzkoa. "Uso Racional del Medicamento" taldeak adierazi du Sailaren webgunean eskuragarri daudela argitaratutako gainerako oharrak.

Despreskripzioko esku-hartzeen eragina adin handiko pertsonen hilkortasunean eta osasun-emaitzetan: berrikuspen sistematiko eguneratua eta metaanalisia

Bristish Journal of Clinical Pharmacology aldizkarian argitaratu berri den artikulu batek ondorioztatu du despreskripzioak onura garrantzitsuak izan ditzakeela biziraupenean, bereziki esku-hartze indibidualizatuak aplikatzen direnean eta horiek goiz hasten direnean.

Informazio gehiago [esteka](#)

D bitamina gehigarria eta hausturen intzidentzia adin handiko populazio osasuntsuan: ausazko saiakuntza kontrolatuen metaanalisia

Journal of General Internal Medicine aldizkarian argitaratutako artikulu honek ondorioztatzen du D bitamina gehigarriak ez duela murrizten hausturen garapen-tasa osoa adin handiko pertsona osasuntsuetan eta aldaka-hausturen intzidentzia areagotu dezakeela adin handiko emakume osasuntsuen artean. Aurkikuntza honek iradokitzen du kaltziorik gabeko D bitaminaren aldizkako dosi altuak 60 urtetik gorakoei ez preskribatzea, baldin eta D bitaminaren kontzentrazio serikoa edo osteoporosi-egoera ezagutzen ez bada eta kaltzio-ahorakin desegokia badute.

Informazio gehiago [esteka](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira 2024ko urriko berritasunak:

2024ko urria		
	Buprenorfina/ Naloxona	Zubsolv®, Suboxone®, Buprenorfina/naloxona EFG mihipeko konprimatuak. Azaroaren 1etik aurrera, buprenorfina/naloxona asoziazioa duten medikamentuak bisatzeko beharra deuseztatuko da.

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispentsazio-baldintzak zabaltzea.

2020ko urtarritetik aurrerako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

APIXABAN-AREN ETA PRESIDEN PRESKRIBATZEAREN EGOERAREN EGUNGO EGOERA ARGITZEA

Gaur egun, apixabanen aurkezpen generikoak ezin dira estatu mailan merkaturatu, patenteekin lotutako legezko gaiak direla-eta. Beraz, Presbiden eskuragarri dauden DOE preskripzioak apixaban 2,5 mg 20 eta 60 konp. eta apixaban 5 mg 60 konp. dira. Horiekin Eliquis® marka komertziala emango da, momentuz apixaban duen eta eskuragarri dagoen aurkezpen bakarra (5 mg 28 konp.-ko DOE preskripzioaren aukera desagertzen da, ez baitago konprimatu-kopuru horrekin merkaturatutako aurkezpenik).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

BERRITASUNAK FORMULAZIO MAGISTRALEAN

Formula magistral (FM) berria Presbiden: “Lugol fuerte” soluzioa

Formula magistral hau sartu da errezeta elektronikoan:

- 140565 FM “**Lugol fuerte**” soluzioa (0,5 g iodo/1 g ioduro potasio /ur destilatua csp 10 ml)

FM hori finantzatuta dago eta ez dago elkarreragingarritasunean ikusgai.

Presbideko bajak: 100 eta 200 mg-ko sodio kromoglikato kapsulen FM

2024ko abuztuaren 1etik, prestazio farmazeutikoan sartuta daude 100 mg eta 200 mg-ko kromoglikato sodikoko aurkezpen komertzialak: Gastrofrenal® 100 mg eta 200 mg (CN763803 eta 763805). Beraz, ezin da ahotik hartzeko kromoglikato kapsulen formula magistralen preskripzio berririk hasi.

Lehendik preskribatutako formula magistralak soilik emango eta finantzatuko dira urriaren 31ra arte.

E-rezetan sartzen diren formula magistralen zerrenda eta haien finantzaketa-baldintzak [esteka honetan](#) kontsulta daitezke.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Apiretal® niños 250mg, 5 supositorio (paracetamola)
- Aproxxamlo® 150 mg/10 mg 30 estalitako konp. (irbesartana, amlodipinoa)
- Atenza®, Metilfenidato Sandoz® eta Rubicrono® EFG, Concerta® 27 mg askapen luzeko 30 konp. (metilfenidatoa)
- Benadon® 300 mg 20 estalitako konp. (piridoxina (b6 bitamina))
- Cohortan® rectal pomada, 30 g-ko ontzi 1 (hidrokortisona/tirotrizina/isopropilbenzatropina)
- Gabitril® 5, 10 eta 15 mg 100 filmaz estalitako konp. (tiagabina)
- Ginecrin® depot 3,75 mg bial 1 susp. injektagarriako hautsa ask. luzek. + 2 ml-ko anp. disolb. 1; eta Lutrate® depot mensual 3,75 mg hautsa eta disolb. ask. luzek. susp. injekt. bial 1 + 2 ml-ko xiringa aurrekargatua (leuprorelina)
- Mucosan® retard 75 mg ask. luzeko 10 kap. (anbroxola)
- Parlodel® 2,5 mg eta 5 mg, 50 kap. (bromokriptina)
- Surmontil® 25 mg, 50 estalit. konp. (trimipramina)

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Atamax® eta Atomoxetina Cinfa® EFG 25 mg, 60 mg 28 kap. gogor, Atamax® eta Atomoxetina Cinfa® EFG 25 mg 7 kap. gogor (atomoxetina)
- Benzetacil® 6.3.3. hauts-bial 1 susp. injekt. + 1 anp. disolb. (benzilpenizilina benzatina/prokaina/potasikoa)
- Diprosalic® pomada, 30 g-ko ontzi 1 (betametasona, azido salizilikoa)
- Ibuprofeno Kern Pharma® EFG 600 mg granulatu eferbeszenteko 20 zorro (ibuprofenoa)
- Siccafluid 2,5 mg/g gel oftalmikoa 10 g-ko ontzi 1 (karbomeroa)

PRESBIDEn “Hornidura ezak” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE; [Medikamentuan hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPS; [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da